

Oroimen historikoa eta sentsibilitatea

[*Pedrotxo*, 1996]

Xabier Mendiguren Elizegi

Argia, 1.575. zk., 1996-04-28: 45.

Oraintsu ari dira kaleratzen zenbait liburu, 36ko gerra edo horren ingurukoak gaitzat harturik, eta hori ez da harrigarria; lehenagokoa zen harrigarriago herri oso bat erraustu eta txikitu zuen gertaera baten gaineko sorkuntza-lanik ez izatea. Konparatu, esaterako, espainolek garai horrixe buruz egindako milaka filme eta eleberriekin. Historia garaileek idazten omen dute, eta euskaldunek, dudarik gabe, ez genuen deus irabazi harako hartan. Hala ere, galtzaileak beti du aukera bere errekreazioak egiteko, zauriak goxatzeko; gauza jakina da gainera, zoritxarreko epopeiak direla beti ederrenak.

Martin Ugaldereen bizitza ere erditik ebaki zuen gerra madarikatu hark: hamalau urte zituela aldegin behar izan zuen etxetik, eta itzuli zenean ere faxisten harrokeria eta zigorrak jasan behar izan zituen, familia abertzale batekoa izateagatik. Nobela honetan ere haur baten begiak aukeratu ditu ingurura begiratzeko, baina ezin da inola ere esan eleberri autobiografikoa denik. Pedrotxo haur umezurtza da, 1948an 15 urte dituen. Ama hila eta aita gerran galdua. Herri pobre, miseriazko eta zapaldu batean bizi da, baina mutiko koittadu eta inuxentea da, gaiztakeriarik ikusten ez duena, ezta bere kontrako mendekuak datozkionean ere.

Belaunaldi berriak oroimen historikoa galtzen ari direla entzuten da. Baliteke. Erreproduzio sozialerako tresna ahulegiak ditugu gainera, gertakarien gaineko gure ikuspegiak transmititzeko gazteei. Alde horretatik, historia-liburuetan aurki ditzake datuak nahi dituenak, baina horrelako nobeletan sentiberatasun berezi bat kausituko du irakurleak, gertakari horiek baloratzen irakatsiko dion etika.